

## 'IKUSGAIK' ALDIZKARIAREN HISTORIA

Eusko Ikaskuntzaren xede nagusienetako bat ikerketa, trebakuntza eta kultur zein zientzia sustapena bultzatzea izanik, hainbat diziplinako sail zientifikoak ditu erakundeak. Sail bakoitzak, gainera, bere kaiera du. Kaierak 1982an sortu ziren eta Eusko Ikaskuntza osatzen duten sailtako ikerketa lanak argitara ematen dituzte.

Zinematografia saileko kaierek, Eusko Ikaskuntzaren barnean, ezohiko bidea izan dute. Euskal Herriko zinemaren bilakaera historikoak berak mugatu ditu, hein handi batean. Kontuan hartu behar da, esaterako, 80. hamarkadatik aurrera soilik egin zirela arrakasta komertziala izan zezaketen hainbat film luze. Testuinguru horren baitan ez da harritzekoa Zinematografia saileko lehen hiru kaierak, ikerketa artikuluz osatutako aldizkariak izan ordez, liburu monografikoak izatea.

Jose Maria Unsainek idatzitako *El cine y los vascos* –Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Filmategiak argitaratutakoa– lanak ekin zion 1985ean sailtako kaiaren bide berriari. Lasterrera, kaierek etenaldi luzea izan zuten, ordea. 1997an, Juan Miguel Gutierrez Zinematografia saileko zuzendari eta aldizkariaren erredakzio batzordeko zuzendari zela, Zinematografia saileko kaierei IKUSGAIK izena eman zitzaion. Orduan argitaratu zen Juan Miguel Gutierrezek berak idatzitako *Sombras en la caverna. El tempo vasco en el cine*. Bi urte geroago, 1999an, Carlos Roldan Larretak idatzitako *El cine del País Vasco; de Ama Lur (1968) a Airbag (1997)* kaleratu zen.

2000. urtean IKUSGAIK-en laugarren lana argitaratu zen, eta orduantxe hartu zuen azkenaldian ezagutu dugun formatu tradizionala eta hainbat ikertzailearen lanak biltzen dituen aldizkari zientifikoaren izaera ere. Hurrengo urtean, berriz, bosgarren lana kaleratu zen. 2003. urtean, Txomin Ansola erredakzio batzordeko zuzendari zela, seigarren zenbakia argitaratu zen. Hirugarren eta laugarren zenbakiei dagokienez, ale berri horiek berrikuntza bat izan zuten: pelikulen zein liburuen albiste laburrak eta euskal zinemaren musika lantzen zuen atal bat. Asmoa urtean behin argitaratzeko moduko argitalpen bat egitea zen. Era berean, euskal zinema ikerketa ardatz duten ikerlarien elkargune izateaz gain, gure zinemaren gaurkotasuna eta bibliografia zintzoki jarraitzea zuen helburu. Egitasmo hark, lan prozedura horri jarraiki, beste zenbaki bat, zazpigarrena, emango zuen 2004. urtean. Une horretatik aurrera, ez da aldizkaria argitaratuko. Alta, 2011. urtean, Andoni Iturbek, Zinematografia saileko presidente aukeratu berriak, IKUSGAIK aldizkaria berriz ere abian jartzea proposatu zuen. Gauzak horrela, aro berri honetan, bere historia labur baina biziaren adierazle, euskal zinemaren inguruko ikerketa akademikoaren eredu esanguratsuena izaten jarraitu nahi du IKUSGAIK aldizkariak.

## IKUSGAIAKen aro berria

IKUSGAIAK aldizkariak orain arte egindakoari jarraipena emateaz gain, Euskal Herriko ikus-entzunezko sortze-lanaren inguruko pentsamolde kritikoa birsortzeko nahia duen aro berri bat abiaraziko du. Hala, euskal zinema eta euskal ikus-entzunezkoen ekoizpenaren inguruan gune akademikoaren erreferentzia-puntua izan nahi du nazioarte mailan ere. Hori guztia, aldizkari bati eska diezaiokegun zorrotasuna bidelagun hartuta eta orain arteko ibilbide historikoa alboratu gabe; izan ere elkargune honen bidez, eztabaida sortu eta, bide batez, bere jarduera semantikoaren ikerketa lanak bideratu eta bere eragin-eremuan nagusitasuna erakutsi nahi baitu.

Saso berri honetan, Eusko Ikaskuntzaren –zeinak bere baitan diziplinartekotasuna eta ikerkuntza bildu dituen– bikaintasun eta tradizioan oinarritzen da IKUSGAIAK. Hala, *eusko-ikaskuntza.org* plataforma digitalean abiaraziko da beren beregi aipatu erakundeak dituen oinarritzko balio horien eredu gisa. Hortaz, kaiera *on line* bidezkoa izango da.

## Ikerketa eremua

IKUSGAIAKen ikerketa eremuak Euskal Herriko ikus-entzunezko sortze-lana izango du ardatz, hizkuntzak eta banaketa zein erakusketa sistemak (zinema aretoak, internet edo zirkuitu alternatiboetako banaketa) direnak direla ere.

Izaera irekia du aldizkariak eta bere xedea historian barrena euskal ikus-entzunezkoak izandako sorkuntza eta ekoizpenaren bilakaera ikertzea izango da. Horretarako, hain zuzen, hainbat ikuspegi uztartuko dira. Gaiak askotarikoak izango dira eta ikerketa lerro oparoa izango du. Hortaz, izaera horren baitan, *miszelanea* formatua izango du. Gainera, zenbaki monografikoak editatzeko aukera ere kontuan hartuko da, betiere gai jakin baten inguruko interesak hala eskatuta. Ikus-entzunezkoen ikerketa lerroa bere gain hartzen duten atalak jarraian aipatzen direnak izango dira, oro har:

- Euskal ikus-entzunezkoaren historia.
- Fikziozko zinema eta telebistarako fikzioa.
- Dokumentala.
- Animazioa.
- Euskal zinemaren nortasunari buruzko eztabaida.
- Argazkia.
- Publizitate sormena, bideoklipak eta beste ikus-entzunezko formatuak.
- Arte sormena eta ikus-entzunezko esperimantazioa: bideoarte, instalazioak, ikus-entzunezko erakusketak eta ildo artistiko berriak.
- Ekoizpena, banaketa eta erakusketa.
- Interneteko ikus-entzunezkoen sorkuntza zein ekoizpena eta euskarri multimedia berriak.
- Euskal ikus-entzunezkoetako profesionalak: gidoigileak, zuzendariak, ekoizleak, aktoreak, argazki zuzendariak, argigileak eta arte zuzendariak, besteak beste.

Ikerketa metodologiak:

- Historiografia.
- Zinema analisia.
- Genero ikerketak.
- Semiotika bisuala.
- Kultur ikasketak edo Cultur Studies.

### Batzordeak

IKUSGAIAKeko zuzendaria Andoni Iturbe Tolosa (Eusko Ikaskuntza, Bilbo) da, eta idazkaria, Ainhoa Fernández de Arroyabe (EHU/UPV). Biak ala biak, erredakzio batzordeko kide dira. Gainontzeko kideak hauexek dira: Nekane Zubiaur (EHU/UPV), Iñaki Lazkano (EHU/UPV), Carlos Roldán (Eusko Ikaskuntza, Iruñea-Pamplona), Unai Belaustegi (Eusko Ikaskuntza, Donostia), Fernando Camarero (Eusko Ikaskuntza, Gasteiz) eta Begoña Gorospe (Eusko Ikaskuntza, Donostia).

Batzorde zientifikoa:

Javier Aguirresarobe, Argazki zuzendaria. Eibar  
 Alicia Alted Vigil, UNED. Madril.  
 Carmen Arocena, EHU/UPV. Bilbo  
 Jose Julian Bakedano, Arte Eder Museoa. Bilbo  
 Casilda de Miguel, EHU/UPV. Bilbo  
 Santiago de Pablo, EHU/UPV. Vitoria-Gasteiz  
 Ana Diez. Zinegilea. Univ. Carlos III. Madril  
 Joxean Fernandez, Euskadiko Filmategia. Donostia  
 Agustín Gomez, Universidad de Málaga. Malaga  
 Isabel Herguera, Arteleku-Tabakalera. Donostia  
 Manuel Palacio, Univ. Carlos III. Madril  
 Jose Luis Rebordinos, Zinemaldia. Donostia  
 Josu Rekalde, UPV/EHU. Bilbo  
 Maria Pilar Rodríguez, Deustuko Unibertsitatea. Bilbo  
 Antonio Santamarina, Espaniako Filmategia. Madril  
 Rob Stone. University of Birmingham. Birmingham  
 Joseba Zulaika, Nevadako Unibertsitatea. Reno  
 Santos Zunzunegui. UPV/EHU. Bilbo

Txandakako egitura izango du IKUSGAIK aldizkariaren erredakzio batzordeak eta bi urtean behin berriztatuko da zuzendaritza. Hortaz, agintaldi bakoitzaren amaieran, zuzendari izatera igaroko da idazkaria eta erredakzio batzordeko kideetako batek hartuko du haren lekua. Horretaz gain, kaierak bere gain hartzen du zuzendaritzaren izaera paritarioa.

## Maiztasuna

IKUSGAIAK kaiera urtean behin argitaratuko da. Monografiak, betiere lerro editoriala aintzat harturik, kaieraren apustu osagarriak izango dira.

## ARTIKULU DEIALDIA / CALL FOR PAPERS

### Ebaluazioa sistema

Artikuluaren berraztertze prozesua “peer review” bitartez egingo da eta artikulu bakoitza argitalpenetik kanpoko bi ebaluatzailek baloratuko dute. Egile bakoitzak al bait lastarren jasoko du erantzuna: positiboa, negatiboa edo aldaketa eskakizunak bideratzen dituena. Artikulua argitaratzeak ez du ordainsaririk izango.

IKUSGAIAKek bere deialdia uneoro zabalik izango du artikuluak jasotzeko, betiere aurrez aipatu lanek edukiak aintzat hartzen badituzte. 2013ko abenduan argitaratuko da aro berri honen lehen zenbakia.

-Artikulu deialdia aldizkariaren izaera irekira eta adostutako *miszelanea* izaerara ere egokitu beharko da.

Egile eskubidea mantenduko dute egileek beraiek eta kaierari artikuluaren lehen argitalpena bertan egingo dela bermatuko diote. Era berean, *Creative Commons Attribution License* lizentziaren bitartez, besteei aukera ematen zaie –egilea eta argitaldaria zeintzuk diren zehaztuz– lana ezagutzera emateko.

### Estilo arauak

IKUSGAIAK aldizkarian euren lana argitaratzeko asmoa duten ikertzaileek honako esteka honetan agertzen diren betebeharrak eta arauak aintzat hartu beharko dituzte. Arau orokor moduan, artikuluak ezin izango dute 30 orrialdetik gora izan. Laburpenak, aldiz, ez du 60 hitz baino gehiago izango. Halaber, *keyword* edo hitz gakoak ere (ez zortzi baino gehiago) jarri beharko dira; euren garrantziaren arabera zerrendatuz. Izenburua, laburpena eta giltza-hitzak euskaraz, frantsesez eta ingelesez argitaratuko dira.

### DESKRIPTOREA

IKUSGAIAK aldizkariaren aro berri honen erronka nagusia euskal zinematografiaren –nazioarte mailan ere esanguratsu den honetan (Kimuak katalogoaren bidez, kasu)– inguruko lan akademiko ororen erreferente bihurtzea da.

Euskal zinemaren kartografia zabal eta oparoa berrikusi eta aztertzeko prest leudekeen artikuluetara zabalik dago IKUSGAIK. Euskal Herrian nahiz Euskal Herritik kanpo bizi diren hainbat belaunaldi ezberdinetako zuzendari eta egileak – sailkatzeko nekeza den egungo zinemaren parte diren beste hainbat egile garaikiderekin ere lotura dutenak– biltzen dituen ikus-entzunezko ekoizpena aztertzea baitu xede.

Andoni Iturbe Tolosa  
IKUSGAIK-eko zuzendaria  
[ikusgaiak@gmail.com](mailto:ikusgaiak@gmail.com)